



## **Turismoa** Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdean

# Etxean bezala

## Etxean bezala sentiaraziko dizuten paraje ikusgarriak

Larraitx Ibaibarriaga Etxaburu  
Hitzako zuzendaria

**N**egua atzean utzi eta aisialdiaz gozatzeko gonbitearekin heldu da, beste behin, udaberria. Eguzki izpiz berotuta, brisa epelez eta kolore biziz jantzita, eder. Urte osoan egin bezala, sasoi honetan ere, ongietorri zabala emateko gogotsu daude Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea. Kultur zein natur ondareak erakusteko irrikitan. Eskuak zabal-zabalik.

Egun pasa edota egonaldi bat egiteko, abentura ahaztezinak bizitzeko askotariko eskaintzak aurkituko dute gurean bisitan datozenek.

Arrantza, itsasoaren edertasuna, itsas eta mendi aktibitateak, hondartzak, ibilbideak... Naturan bete-betean murgildu eta galtzeko eskaintza ezin hobeak aurkitu daitezke itsasoari lotuta eta lurrean sustraituta dauden herri eta paraje ahaztezinetan. Eta, nola ez, kultur eskaintza aberatsa, museo, zentro eta jau-regi ederretan barrena.

Abenturak bizi edo lasaitasunean ostatu hartu nahi izanez gero, zatoz Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdera. Zain gaituzue!

**HITZA**

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZAren  
TURISMO GIDA • 2019ko udaberria

**Argitaratzailea:** Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.

**Lege Gordailua:** BI-2906-03. **ISSN:** 2173-7118.

**Kudeatzailea:** Ama Lur Bedialauneta Ibaibarriaga.

**Zuzendaria:** Larraitx Ibaibarriaga Etxaburu.

**Zuzendariordeak:** Asier Alkorta Bengoetxea

eta Oihana Cabello Elorriaga.

**Testuak:** Asier Alkorta, Nerea Bedialauneta, Lore Bengoetxea, Oihana Cabello, Larraitx Ibaibarriaga, Ane Maruri, Aintzina Monasterio, Eider Mugartegi eta Lander Unzueta.

**Publizitatea:**

Idurre Arrazola Astoreka eta Maribi Fernandez Zabala.  
publibusturia@hitza.eus • 647 31 97 77

publilea@hitza.eus • 600 57 14 26

**EGOITZAK:**

**Bermeo.** Atalde 17, atzealdea, 48370. Tel.: 94-618 72 99.

**Gernika-Lumo.** Bekoibarra. San Miguel eraikina, 35. 1. solairua. 48300. Tel. 94-627 10 85.

**Markina-Xemein.** Arretxinaga, 1 (behea), 48270.

Tel. 94-684 44 36. **Mutriku.** Barrenkale, 12 (behea), 20830. Tel. 943-60 34 68.

euskaraz  
bizi  
nahi dut

HITZAk Bai Euskarari



**JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:**

[www.busturialdea.hitza.eus](http://www.busturialdea.hitza.eus)

[www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus](http://www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus)



## Aurkibidea

|                                                                   |              |
|-------------------------------------------------------------------|--------------|
| <b>ALTZOA BASERRI-OSTATUA (Amoroto)</b>                           | <b>3</b>     |
| <b>AULESTI</b>                                                    | <b>4</b>     |
| <b>LEA IBARRA</b>                                                 | <b>5</b>     |
| <b>ETXEBARRIA</b>                                                 | <b>6</b>     |
| <b>ANTSOTEGI HOTELA SUSTRAIAK-NATURA (Etxebarria)</b>             | <b>7</b>     |
| <b>MARKINA-XEMEIN</b>                                             | <b>8</b>     |
| <b>ZIORTZA-BOLIBAR</b>                                            | <b>9</b>     |
| <b>BERRIATUA</b>                                                  | <b>10</b>    |
| <b>ABENTURA PARK (Mendexa)</b>                                    | <b>11</b>    |
| <b>LEKEITIO</b>                                                   | <b>12</b>    |
| <b>MUTRIKU</b>                                                    | <b>13</b>    |
| <b>ONDARROA</b>                                                   | <b>14-15</b> |
| <b>BASONDO (Kortezubi)</b>                                        | <b>16</b>    |
| <b>BAKEAREN MUSEOA (Gernika-Lumo)</b>                             | <b>17</b>    |
| <b>GAUTEGIZ ARTEAGA</b>                                           | <b>18</b>    |
| <b>NUEVA EUROPA (Urdaibai) BOGA GARAGARDOA</b>                    | <b>19</b>    |
| <b>IBARRANGELU</b>                                                | <b>20</b>    |
| <b>URDAIBAI KIROLEROAK (Bermeo) LAIDA KANOAK (Ibarrangelu)</b>    | <b>21</b>    |
| <b>BERMEO</b>                                                     | <b>22</b>    |
| <b>ANDRA MARI APARTAMENT. (Bermeo) ALDATZETA HOSTALA (Bermeo)</b> | <b>23</b>    |
| <b>ARRIZURIETA LANDETXEA (Bermeo)</b>                             | <b>24</b>    |
| <b>UHAINA (Bermeo) EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)</b>            | <b>25</b>    |
| <b>EA</b>                                                         | <b>26</b>    |
| <b>URDAIBAI ON (Mundaka)</b>                                      | <b>27</b>    |
| <b>NABARNIZ</b>                                                   | <b>28</b>    |
| <b>INER CARAVAN</b>                                               | <b>29</b>    |
| <b>ARRATZU</b>                                                    | <b>30</b>    |
| <b>BERROJA UPELATEGIA (Muxika)</b>                                | <b>31</b>    |
| <b>UR URDAIBAI</b>                                                | <b>32</b>    |





## BASERRI-OSTATUA

**H**ondartzak, hamar minutura. Lea ibaia eta bere ibilbidea, kilometro batera. Oilo, poni, txakur eta katu, etxe inguruan. Txantxan-gorri, zapelatz, katagorri, sugandila, mari-gorringo, azkonar, azeri, orkatz, mozolo... horiek ere inguruan bizi dira. Eta urtarotako bakoitzean jantziak mudatzen dituen ortuan ere saltse-atu ahal duzu gurekin, nahi baduzu. Lehen pinudia zen lurrean, apurka, berezko basoa ari da barriro jaiotzen...

### Zure euskara ahobizitzeko aukera

Altzoa edonongo bisitarientzako dugu zabalik, noski. Baina euskalduntze prozesuan ari zaretenok bereziki zarete ongietorriak! Deskontu berezia dugu Belarriprest izatetik Ahobizi izatera igaro nahian ari zaretenontzat, familiarekin edo lagunekin etortzeko, euskaraz disfrutatzerako. Eta banakako egonaldietarako ere aukera zabalik dugu, diru premia barik. Baserriko lanetan euskaraz dzanga egin nahi baduzu, zatoz!



Bosna lekuko bi logela dituzu eskura, ganbara (goian) eta gela urdina (behean), atsedenerako zein jolaserako.

# Gure etxea, zurea ere bada!

Amorotoko Goiogane baserrian bizi gara eta zure etxea ere senti dezazun nahi dugu. Atsedena, lurraren usaina eta etxeko zein Lea-Artibaiko jakiak dituzu zain. Hau ez da kabitzen turismo hitzean.



Maribi- Xabi  
**609 31 07 91**  
 GOIOGANE BASERRIA • Amoroto (Bizkaia)  
[info@altzoa.eus](mailto:info@altzoa.eus)  
[www.altzoa.eus](http://www.altzoa.eus)





## Gailur zein magalean ere ederra

*Ingurune naturalean dago Aulesti, eta inguruko naturarekin gozatzea gonbitea egiten du.*

**L**ea ibarra osatzen duten udalerrietan handiena eta populatuena da Aulesti. Markina-Xemein, Lekeitio eta Gernika-Lumoren artean kokatuta, Iluntzar eta Bedartzandi mendiek zaintzen dute herria.

Ingurune menditsuan, ibilbide eta mendi txango interesgarriak eskaintzen dizkie Aulestik bisitari. Lea ibilbidea bertatik igarotzen da. Gerrikaitzerantz edo Mendexako Karraspio hondartzara zein Lekeitiora joateko bidegurutza murgilduz gero, basoan sartu eta Lea ibaiaren ondotik kilometroak egiten hasteko aukera ematen du.

9 kilometro dira Gerrikaitz eta Aulesti artekoak, eta 14 Mendexaraino daudenak. Bidea leuna da kostako herriraino, eta ibilbidean, Gizaburuagan eta Oletan geldialdiak egiteko aukera paregabea

ematen du. Aulestetik Gerrikaitzera joanez gero, bestalde, malda handiagoa du bideak, 100 metro inguruko desnibelarekin. Hala ere, eroso egiteko modukoa da. Batera zein bestera eginez gero, naturaz gozatzeko aukera ziurra da Lea ibarreko ibilbidea.

### 700 metrora

Mendi tontorrek ere baditu Aulestik inguruan. Bi dira ezagunak: Urregarai (Santa Eufemia legez ere ezagutzen dena) eta Illunzar.

Aulestitik bertatik igo daiteke Urregarai mendira (704m), eta ostean herrira bueltatu. 14 kilometro inguruko ibilbide zirkularra da, 4 ordu eta erdian egiteko modukoa. Osteratxoa luzatu gura duenak, Bedartzanditik igo dezake Urregarai, Aulestira bueltatzeko gero. Mendi tontorrean, Santa Eufemia ermitaren ondoan, paisaia benetan ikusgarria da: Urdaibaiko itsa-

sadarra, Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldea, Durango inguruko mendiak eta Gipuzkoako mendirik altuenak ere ikus daitezke egun argiarekin. Beherago, Santa Eufemiako zelaian atsedean hartzeko aukera ematen du inguruneak, eta familian zein kuadrillan egun pasa egiteko leku egokia da zelai horretan dagoen Atxagarai aterpetxea.

Illunzar (726m) mendia ere eza-guna da Bizkaian, eta Aulestitik bertatik igo daiteke. Narea auzotik (270m) Illunzar tontorrera heltzerainoko igoera gozatzekoa da mendizaleentzat. Gailurra ordubete eta erdian egiteko modukoa da. Bizkaiko kostaldeko tontorrik gaileenetakoa denez gero, goi-goitik erakusten duena ikusteko modukoa da.

Aulestira bueltan, bertako parkeak bainua hartzeko, jolasteko zein atsedena hartzeko aukera ematen du.



**AULESTIKO  
UDALA**

**Helbidea:** Donibane enparantza, 1  
**Telefonoa:** 94-627 90 06  
**Faxa:** 94-627 91 17  
**E-maila:** [idadzkaria@alesti.eus](mailto:idadzkaria@alesti.eus)  
**Webgunea:** [www.alesti.eus](http://www.alesti.eus)



Adin guztientzako ibilbide aproposa da. LEA IBARRA

## Natura eta historia lotzen dituen ibilbidea

*Lea Ibaia laburra dela esan dezakegun arren, jarraitzen duen ibilbidea benetan aberatsa da, bai historia zein ingurumen aldetik. Lea Ibarra ibilbidea familiagaz horretaz gozatzeko modu aproposena da.*

**L**ea Ibarra osatzen duten herriek kultur ondare aberatsa dute. Mendexa, Amoro to, Gizaburuaga, Aulesti eta Munitibar historiaz beteta daude, eta horren auzo bereziak inguratuz naturaz gozatzeko landa eremu ederrak dituzte.

Lea Ibarra ibilbidea 23 kilometroko luzera duen bidea da. Bost udalerriak eta horiek osatzen dituzten hainbat auzo ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen du.

Familia osoarentzako ibilbidea dugu, beraz, adin guztietako pertsonak oinez zein bizikletaz gozatu dezaketena. Lea ibaiaren parean dagoen Mendexako Marierratan hasten da. Ibaia egiten duen ibilbidea jarraitzen badugu, Amoro to barnean dagoen Oleta auzoa igaro eta Gizaburuagara helduko gara.

Bertan iraganera jauzi egingo dugu. Izan ere, ilustrazioaren eta industralizazioaren garaietan berebiziko garrantzia eduki zuen.

Garai batean mundu osoko burdinola garrantzitsuena izan zena aurkituko dugu hemen, Bengolea izeneko. Izan ere, Europa osoko manufakturuak hornitu zituen. Burdinolagaz batera, ondare historiko handiko dorretxeagaz topo egingo dugu.

Ibilbidea bukatzeko, Munitibarren kokatuta dagoen Bengola Na-

### Zer bisitatu

#### **Ospitale zaharra.**

Mendexan 1632an eraikitako ospitalearen hondakinak baino ez dira gelditzen. Balio handiko eraikina dugu hau.

#### **Oletako jolasgunea.**

Amorotoan dagoen jolasguneak atseden hartzeko aukera bikaina eskaintzen die ibiltariei.

#### **Antzior Zubia.**

Aulestiko zubi hau 1627an izandako uholdeek behera bota zuten zubi zaharraren oinordekoa da. Hargintza lehorrez egindako eraikuntza iraunkorra dugu.

#### **Aisureta.**

Aulesti eta Munitibar bitartean Mikel Lertxundi artistak egindako sua, ura eta airea irudikatzen dituzten sormen lanak topatuko ditugu.

tur Energia Interpretazio Zentrora iritsiko gara.

### **Iraganetik etorkizunera**

Gune honetan Bizkaiko burdinola-rik zaharrena zegoen XIV. mendean, baina gaur egun modu didaktiko batean energia hidraulikoa, fotoboltaikoa eta eolikoa ezagutu eta lantzeko aukera eskaintzen duen zentroa dugu.

Zientziagaz ondopasatu eta jolasteagaz batera, barbakoa egiteko piknik mahaiak aurkituko ditugu bertan, ibilbide luzea egin ostean egunari bukaera ezin hobea emateko.

Ez da ibilbidean geldialdia egiteko aurkituko dugun toki bakarra izango, naturagaz eta ondare kulturagaz betetako bidea jarraitzen duenak hainbat txoko berezi eta eder aurkituko baititu.



**Helbidea:** Elexalde 1, Gizaburuaga

**Telefonoa:** 94-684 29 82

**Faxa:** 94-684 44 21

**Posta elektronikoa:** [leaibarra@bizkaia.org](mailto:leaibarra@bizkaia.org)

**Webgunea:** [www.leaibarra.eus](http://www.leaibarra.eus)





Altzaa auzoan dagoen Antsotegi dorrea.

## Jauregi ederrez apaindutako paisaia

*Txikia bada ere,  
ezagutzeko asko  
daukan udalerria da  
Etxebarria; ondarez bete  
daude kale eta auzoak*

**Z**ergaiti ugari daude Etxebarria bisitatze-ko. Euretako bat Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugan dagoen herri txiki honek eskaintzen duen ondare natural, kultural eta arkitektoniko aberatsa da. Ingurune lasaiarekin gozatu, eta, aldi berean, garai ezberdinetako monumentu eta eraikinak mirestu daitezke herriko txoko ezberdinetan. Izan ere, jauregi ederrez bete dago udalerria: Mañozka Jauregia, Patrokua Jauregia, Antsotegi Jauregia edota Munibe Jauregia dira horren adibide. Baina ez dira albo batera utzi behar, ezta ere, Etxebarria eta Barinaga lotzen dituen

errepidearen ondoan dauden Ibarguengo garaia edota Urrosolo errota. XVI. mendearen erdialdeko garautegia eta ibai errotara bisita egitea ezinbestekoa da.

Herrigunean dago, San Andres parrokiatik oso gertu, Patrokua Jauregia. Gaur egun landa guneko etxebizitza bilakatuta badago ere, XVIII. mendearen hasierako jauregi barrokoa da, eta aurrekaldean Barroetatarren armarrria dauka, horiek baitziren jauregiaren jabeak eta elizaren zaindariak 1796an.

Jatorrian, XV. mendeko dorretxea izan zen Mañozka. Bertan jaio ziren Juan Mañozca, Mexikoko artzapezpiku 1643 eta 1653 bitartean, eta Jose Santos Mañozca, XVIII.

mendearen Kubako apezpiku zela indiarrek martirizatu eta hildakoa.

Herrigunetik haratzago, Altzaa auzoan aurkitzen dira Antsotegi eta Munibe landa guneko jauregiak. XVII. mendearen amaieran eta XVIII. mendearen hasieran eraiki zuten Antsotegi, aurretik bertan zegoen eraikin baten gainean. Etxebizitzarekin batera errota eta burdinola daude. XX. mendearen hasierakoa da, berriz, Munibe. Eredu herrerairei jarraituz eraiki zuten, baina barrokoko hainbat elementu sartuz. Urko Bidea jarraituz, bidegorrian zehar paseo atsegina eginda, ailegatu daiteke bietara.

### Jaiak eta azokak

Etxebarriko jai nagusiak bi dira: Santixau jaiak, uztailaren 25ean eta San Andres jaiak, azaroaren 30ean. Horien bueltan ekimen ugari antolatzen dituzte herritarrek. Horrez gain, abere azoka bat egiten da urtero, ekainean, eta Aste Santukoak ere mugimendu handiko egunak izaten dira epe horretan lehiatzen dira-eta Etxebarriko probalekuan, idi proba ezagunak. Aurten, martxoaren 30etik apirilaren 8ra bitartean egongo da norgehiagoka Euskal Herriko 23 idi bikoteraren artean.

### NON JAN eta NON LO

#### Antsotegi hotela eta jatetxea.

Altzaa auzoa, 15. Tfn: 94-616 91 00.

#### Txomin Ostata.

Erbera, 12. Tfn: 94-616 82 22.

#### Hiru Bide taberna.

Erbera, 3. Tfn: 94-616 65 50.

#### Olaia jatetxea.

Altzibar auzoa, 1. Tfn: 94-616 63 94.

#### Otsolo taberna.

Erbera, 10. Tfn: 94-616 96 90.



**ETXEBARRIKO  
UDALA**

**Helbidea:** Peñanekua Plaza, 1

**Telefonoa:** 94-616 64 32

**Faxa:** 94-616 74 77

**Posta elektronikoa:**

[ghernando.etxebarria@bizkaia.org](mailto:ghernando.etxebarria@bizkaia.org)

**Webgunea:** [www.etxebarria.biz](http://www.etxebarria.biz)

# Hotel eta jatetxe bat baino gehiago

*Antsotegi hotel-jatetxeak eskaintza gastronomiko zabala, naturaz gozatzeko esperientzia bereziak eta bestelako ekintzak egiteko aukera gordetzen ditu. Lea-Artibaiko arnasmune berde eta lasaian dago kokatuta.*



**B**izkaiko txoko liluragarri-  
netariko baten kokatuta,  
goxotasuna, aparteko xar-  
ma eta naturagaz harre-  
manetan, askotariko espe-  
rientziak bizitzeko toki  
aproposa da Antsotegi hotel-jate-  
txea. XIX. Mendeko burdinola baten  
eraikita dago hotela, eta kanpotik  
ere hori atzematen bada ere, barru-  
tik, txoko guztiek burdinolaren az-  
tarnak mantentzen dituzte.

Epeltasuna da Antsotegira sartu  
orduko bisitariak sumatuko duena.  
Eta horren erantzule dira hasiera-  
hasieratik hotelaren ardura dara-  
maten Julen, Gontzal eta Pello Her-  
nando anaiak; hamabost urte dara-  
matzate euren etxeko ateak zabal-  
du eta kanpotik datorrena eskuak  
zabal-zabalik hartzen.

## Gastronomia eta esperientziak

Lea-Artibai eskualdearen arnasmu-  
ne berdean kokatuta, egonaldi luze-  
ak zein motzak egiteko aproposa da  
Antsotegi, zeinetan paisaia ederraz  
gain, eskaintza gastronomiko zaba-  
laz gozatzeko aukera dagoen: jate-



Sustraiak Naturaren ekintza bat.

txe eta pizzeria (ostiral, larunbat eta  
igandeetan) berezia ditu Antsote-  
gik. Lea-Artibaiko sasoian sasoiko  
produktuak baratzetik sukaldera  
eskaintzen dituzte: degustazio me-  
nuak, eguneko menua, tenperatura  
baxuko sukaldea eta errazioak.

Horri guztiorri esperientzia be-  
reziak bizitzeko aukera gehitzen  
zaio. Izan ere, urte osoan, tailerrak,  
hitzaldiak, ikastaroak, kontzert-  
tuak, eta abar eskaintzen dituzte.

Baina Antsotegiren eskaintza  
haratago doa. Hala, Sustraiak Na-  
tura egitasmoari esker, kobetan ba-  
rrena espeleologia egiteko aukera,  
tirolina eta puenting praktikatzeko  
eskaintzak ere badituzte.

Jardunaldiak, ezkontzak eta bes-  
telakoak ospatzeko toki aproposito-  
a ere bada.

Lasaitasunaren bila doazenek ere  
gune zoragarria aurkituko dute. Izan  
ere, hotelak Etxebarria eta Markina-  
Xemein lotzen dituen bidegorria ere  
esku-eskura dauka.

Izateko eta gauzak egiteko modu  
berezia daukate Hernando anaiak.  
Eta horren guztiaren isla dira An-  
tsotegi hotela eta jatetxea. Edonola  
ere, ikustekoa, bizitzekoa eta senti-  
tzekoa da Antsotegi.

---

**Helbidea:** Altzaa auzoa,  
Antsotegi errota, 15 (Etxebarria)  
**Telefonoa:** 94-616 91 00  
**Posta elektronikoa:**  
antsotegi@antsotegi.com  
**Webguneak:**  
www.antsotegi.com  
www.sustraiaknatura.com



Markina-Xemeingo turismo webgunea. [WWW.MXTURISMOA.EUS](http://WWW.MXTURISMOA.EUS)

## Markina-Xemein, klik bakar batean eskura

*Bizkaiko txoko honetara asteburu pasa edo egun pasa datorren bisitariak ezinbestean ikusi behar dituen leku esanguratsuei buruzko informazioa 'www.mxturismoa.eus' atarian aurkituko du.*

**M**arkina-Xemeinek bisitaria harrituko duen hainbat bereizgarri dauzka: paisaia paregabeak, kultur ondarea, pilotaren unibertsitatea, gastronomia goxoa... Eta udalerrria bisitatzera datozenen informazio baliagarria emateko asmoarekin sortu zen duela urtebete [www.mxturismoa.eus](http://www.mxturismoa.eus) web ataria.

Oporraldi labur baterako, asteburu pasa, zubietarako edo egun pasa baterako ideiak hartzeko aproposa da webgunea. Bisitariarentzako interesgarria izan daitekeen eskaintza turistiko baliagarria, aisialdiarekin lotutako informazioa eta herrian aurki daitezkeen aukera guztiak modu erraz, garbi, praktikoa eta dinamikoan eskuratu daitezke klik bakar batean. Formatua, gainera, mugikorren-

tzat eta tabletentzat ere egokituta dago. Euskaldunei zein kanpotik datozten bisitariari zuzenduta dago web ataria euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta orain, frantsesez ere bai.

Webguneak, besteak beste, Markina-Xemeinera datorren bisitariak ezinbestean ikusi behar dituen leku esanguratsueni buruzko informazioa jasotzen du. Herrian egin daitezkeen bestelako proposamenek ere badute tarte web atarian: ibilbideak, bisita gidatuak, herriko ondare naturala eta kulturala

ezagutzeko informazioa, turismo aktiboa, agenda, jaiak...

Bisitarien behar guztiak asetzeko asmoz, gainera, [mxturismoa.eus](http://mxturismoa.eus) ataria udalerrriak eskaintzen dituen bestelako zerbitzuen, bertoko ekoizleen produktuak dastatzeko dauden tokien, saltoki txikien, jate-txeen, tabernen edo lo egiteko tokien eskaintzaren erakusleiho aparta bihurtu da.

### Umeentzako ere bai

Bisitarien esperientzia borobiltzeko, ikusi beharrekoak eta herriko beste lekuri interesgarrienak jasotzen dituzten Turistaren Planoak eta Turistaren Gidak ere badaude eskura webgunean. Bi aukera horiez gain, Aste Santurako beste plano berri bat ere eskuragarri edukiko dute bisitatiek webgunean zein udaletxeko harreran, herri bibliotekan, Uhagon kultur gunean, aterpetxean eta lotako tokietan.

Eskaintza turistikoa umeentzako ere pertsonalizatu dute estreinako. Umeei bereziki zuzendutako planoak sortu dute, familian datozenen eskaintza asetzeko.

Umeen ikuspegitik landu dute planoak, eta era eroso batean familiako txikien beharriaz netara egokitutako hainbat ekintzez betetako ibilbidea proposatzen du, era didaktiko

eta jostagarrian, beti ere, haurra bera protagonista bihurtuz.

Markina-Xemein moduko herri euskaldun eta atsegin bateko giroa sentitu nahi duenak hurrengorako plan egokia [www.mxturismoa.eus](http://www.mxturismoa.eus) web atarian aurki dezake dudarik gabe. Zatoz esperientzia atsegin eta ahaztezin bat bizitzera.



# [www.mxturismoa.eus](http://www.mxturismoa.eus)

## MARKINA-XEMEINGO UDALA





*Ahoz ahoko tradizioak leku berezia du Ziortza-Bolibarren. Ziortzaren sorrera kondaira batean oinarritzen dute askok.*

**U**dalerriko aztarna zaharrenak erromatar garaikoak dira Ziortza-Bolibarren. Erromatar garaia eta gero, isilaldi bat zabaldu zen bertan, eta horrek XI. mendera arte iraun zuen. Hain zuzen, erlijio gune txiki batzuk sortu zirenera arte: Arta, Bolibar eta Ziortza.

Ziortza edo Zenarruza izena 1082. urtean agertu zen lehen aldiz dokumentu idatzietan. Hala ere, tradizioz esan ohi da 968. urtekoa dela bertako eliza.

Tradizioz betetako herria da Ziortza-Bolibar, eta kultura zaharrak herri guztietan egin bezala, mitoak utzi ditu udalerrian. Denboraren joan-etorriak ahoz aho transmititu diren kondairetan eragina izan duen arren, badira Ziortza-Bolibarren ezagunak diren

kondaira batzuk; Ziortzaren sorrerarena, esate baterako.

Elezaharrak dioenez, 968. urteko Ama Birjinaren Jasokundearen egunean, Santa Luziako elizan fededunak meza entzuten zeuden. Eta, halako batean, arrano bat agertu zitzaion, ondoko kanposantuko hilerri batetik hartutako burezur bat ahoan zeramala. Eliztarrek harrituta jarraitu zuten arranoaren ibilbidea sasi artera, eta Ziortzako kokagunearen gainean askatu omen zuen garezurra, sasien gainera botatz. Hantxe utzi zuen, Ziortza non sortu behar zen aditzera eman nahian. Edestia Ziortzako kolegiataren armarrian geratu omen zen grabatuta, eta geroago, Ziortza-Bolibarko Udalaren armarrian.

Kondairak dioenez, leku horretan, hain zuzen, eraiki zen Ziortza-ko eliza, Bizkaian inoiz egon den

kolegiata bakarra. Gaur egun, monasterioa da.

Kalagorriko apezpikua zen Don Gonzalo de Menak berreraiki eta handitu zuen Ziortzako Andra Mari eliza, eta 1380an eman zituen argitara abadetxearen arau izango zirenak. Baina sute handi batek Ziortzako zati handi bat erraustu zuen 1954an. Urteetan hustuta egon ostean, berriz, Nafarroako Olibako monasteriotik etorritako komunitate zistertarreko fraideek bizi berria eman zioten Ziortzari.

Kostatik igarotzen den Done Jakue bidearen hito garrantzitsuenetakoa da Ziortza, eta Bolibar herri-rik kolegiataraino jatorrizko galtzada edo bidarria gorde ditu. Altxor bat da ibiltarientzat.

### **Elezaharren gordelekua**

Ziortzaren sorreraz gain, udalerriak beste bi kondaira gordetzen ditu. Markolako jentilarena da bat. Antza denez, bikote bat idiekin lanera joaten zen egunero, baina egun batean Markolako haitz puntatik jentil batek harriak botata zapaldu egin zituen. Gertakizuna zigor moduan ulertu zuten biztanleek, Ostegun Santu egunean lanera joateagatik. Gaur egun, nekazal munduan kristautasunak eta jentiltasunak izandako presentziagaz lotzen dute elezaharra.

Eztenabietako kontakizuna, berriz, izen hori daraman baserriko gertakizun batean oinarritzen da. Diotenez, Eztenabietako andreari Mari euskal mitologiako jainkosa katu beltz itxuragaz agertu zitzaion haria egiten zuen bitartean. Ondorioz, andrea guztiz beldurtuta bizi zen. Gau batean, baina, gizona andrez jantzi eta katuari alde egiteko eskatu zion. «Gizona izan eta goruetan?», galdegin zion katuak. Senarrak katuek nola hitz egiten galdetu, eta hortik alde egiteko eskatu zion, andrea betirako bakean utziz.



**ZIORTZA-  
BOLIBAR  
ELIZATEKO  
UDALA**

**Helbidea:** Domingo Ugartetxea, 3  
**Telefona:** 94-627 57 27  
**Faxa:** 94-616 40 16  
**Posta elektronikoa:**  
[udala@ziortza-bolibar.com](mailto:udala@ziortza-bolibar.com)  
**Webgunea:** [www.ziortza-bolibar.com](http://www.ziortza-bolibar.com)



## Aisialdi aukera anitzen topalekua

*Ageriko eta aurkitzea merezi duten hainbat altxor ditu Berriatuak, herrigunean zein inguruetan. Euskaraz eta eskuzabal emango dizu ongietorria.*

tsasoari lotuta eta lurrari errotuta, Lea-Artibai eskualdearen bihotzean dago Berriatua, Ondarroa eta Markina-Xemeindik hurbil. 20 kilometro koa droko lur eremu zabalak asko dauka bisitariari eskaintzeko. Kultur ondarea gertutik ezagutzeko aukerak, bakarka zein familiarekin egoteko guneak, auzo lasaiak eta aukerez betetako herrigunea... Horiek guztiek egiten dute Berriatua.

Herrigunean Herriko Plaza nagusia ageri da, umeentzako jolas parke entretenigarriarekin. Inguruko paisaia kontuan hartuta berritu zuten 2016an, eta txikienei ondo baino hobeto pasatzeko aukera eskaintzen die, eta nagusiagoei lasai egoteko gune aproposa aurkitzen dute bertan. Urte osoan, gainera, plaza herritarren topaleku eta ekintza desberdinen agerto-

ki izaten da; San Gregorio jaietan (apirila amaieran eta maiatzeko lehen asteetan); Nekazal eta Arrain Kontserba Azokan jaien atarian...

Plaza gehiago ere baditu Berriatuak. Ibarra futbol zelaiaren aurrean, arteak dotoretutako Urepel plaza aurki daiteke. Urak, suak eta aireak bat egiten duten leku magikoa, Mikel Lertxundi herriko artistak landutako eskulturez osatua. Iraganeko herriaren paisaia ekonomikoaren isla.

Eta tartean, Etxepintxu XVIII. mendeko jauregi etxea. Bere fatxadan garai bateko bizimodua erakusten duten margoak ditu, freskoak. Euskal Herrian gutxi dira pintzelkadaz pintzelkada



### NON JAN

- Arriola jatetxea (Erribera, 87). 94-613 90 05.
- Laka-Erdi sagardotegia (Merelludi auzoan). 94-613 91 78.
- Mendibarren taberna/jatetxea (Zeharbide, 10). 94-613 92 18.
- Urepel (Zeharbide, 12): 94-613 90 93.
- Zentrala taberna/jatetxea (Erribera, 30). 94-613 92 86.

### NON LO EGIN

- Berritxu Ostataua (Aransolo, 6). 635 73 37 99.
- Orubixe Landa etxea (Madalena, 24). 94-613 92 85.
- Urkixa Bekoa nekazal etxea: (Asterrika, 25). 94-683 33 23.

margoturik dauden mota horretako eraikinak.

Eta herrigunetik haratago, ibilbide bat baino gehiago, esku-eskura. Errege Bidea da horietako bat, Artibai errekaaren emariari jarraituz kostalderaino doan mendi bide polit bezain aberasgarria. Aranzibia dorretxea, Orubixe eta Urepeleko iturburuak zein ohiko baserriak eta errota izandakoetan geldialdia egin ahal-ko du ibiltariak.



**BERRIATUA  
ELIZATEKO  
UDALA**

**Helbidea:** Herriko plaza, 1  
**Telefona:** 94-613 70 30  
**Faxa:** 94-613 70 27  
**Posta elektronikoa:** [udala@berriatua.org](mailto:udala@berriatua.org)  
**Webgunea:** [www.berriatua.org](http://www.berriatua.org)



# NEURRIRA EGINDAKO ESKAINZA, MENDEXAN

*Mendiaz zein itsasoaz gozatzeko aukera eskaintzen du Mendexak. Abentura parkeak 17 tirolina eta 70 erronkatik gora eskaintzen ditu.*

**B**izkaiko kostaldeko ekialdean kokatuta, mendiaz zein itsasoaz gozatzeko aukera eskaintzen du Mendexak; zuzenean naturagaz lotutako eskaintzak dira nagusi Mendexan.

Herrigunea mendi tontorrean kokatuta dago (Zelaia auzoa). Baina beste hiru auzok ere osatzen dute herria: Likoa, Leagi eta Iturreta. Auzo batean zein bestean, baserri eder ugari aurkituko ditu bisitariak. Tartean Likona baserria, XVI. mende hasierakoa; Mendexako baserri zaharrena da. Baina dorretxeak ere baditu, Leagi, esaterako.

## Oinezkoentzako ibilbidea

Lea ibaiaren albo batean kokatzen den Karraspio hondartzak ere askotariko aukerak eskaintzen ditu. Lasai egoteko zein itsasoaz lotuta-

ko ekintzak egiteko aukera eskaintzen dute bertan, surfa, esaterako. Hondartzak San Nikolas edo Garraitz uhartea dauka aurrez aurre, eta Lekeitioko portua ere ikusten da. Mendi eta zelai berdez inguratuta dagoen hondartza zabal, luze eta ederra da.

Lea ibilbidea ere Mendexan hasten edo amaitzen da; 23 kilometroko bideak Munitibarreraino eramango du bisitaria. Ibilbidea 1555. urtean eraiki zuten Marierrota itsas errotaren dikearen eta ur biltzeiaren parean dago kokatuta.



Karraspio hondartza.

Itsasoa edo ibaia albo batera lagata, azken urteetan bestelako eskaintza ere badauka Mendexak: Mendexa Abentura Park. Euskal kostaldeko abentura parkea Leagi auzoan dago kokatuta, eta 70 erronka baino gehiago eta 17 tirolinadun 4 zirkuito eskaintzen du.

Parkea adin guztiei zuzenduta dago, eta zuhaitzez zuhaitz ibiltzeko aukera eskaintzen du berrikuntzaz betetako ibilbideetan.



**MENDEXAKO  
UDALA**

**Helbidea:** Zelaia auzoa, 1

**Telefonoa:** 94-684 21 06

**Webgunea:** [www.mendexa.net](http://www.mendexa.net)

**Harremanetarako:**

[idazkaritza.mendexa@bizkaia.org](mailto:idazkaritza.mendexa@bizkaia.org)

## Mendexa Abentura Park

### Zirkuituak

#### Yoko zirkuitua.

- Erreferentziko adina: 4-8 urte.
- Altuera: gutxienez 1,10 metro.
- Zirkuitua: 15 erronka [hiru tirolina]

#### Zirkuitu berdea.

- Erreferentziko adina: 9 urte [14 urtetik beherakoak lagunduta]
- Altuera: gutxienez 1,40 metro.
- Zirkuitua: 15 erronka [bost tirolina]

#### Zirkuitu urdina.

- Erreferentziko adina: 12 urte [14 urtetik beherakoak lagunduta]
- Altuera: gutxienez 1,50 metro.
- Zirkuitua: 16 erronka [lau tirolina]

#### Zirkuitu gorria.

- Erreferentziko adina: 15 urte [16 urtetik beherakoak lagunduta]
- Altuera: gutxienez 1,50 metro.
- Zirkuitua: 21 erronka [bost tirolina]



### Eskaintza bereziak

#### Familian.

- 4 urtetik aurrerako umeak dituzten familientzako eskaintza. Eskaintza berezia 13 urtera arte eta hiru lagunetik gorako familientzat, guztientzako prezio berdinarekin.

#### Urtebetetze jaiek egiteko aukera.

- Ume, gazte zein nagusien urtebetetze egun bereziak ospatzeko eskaintza.

#### Opari txartelak.

- Naturagaz gozatzeko opari originalak egiteko aukera.

- Ezkondutako aurreko agur jaiek.**
  - Naturan barneratuta agur jai originalak egiteko eskaintza zabal.

#### Gazte taldeak.

- Gazte taldeentzako abentura, udaleku edota kanpaldientzat osagarri aproposa.

#### Ikasle taldeak.

- Asialdia eta formakuntza eskutik: Abentura naturan, tirolinak, tibeteko zubiak, rokodromoak...

### Kontaktua

#### Helbidea:

Leagi auzoa [Mendexa].

**Telefono zenbakia:**  
688 85 62 83

**Posta elektronikoa:**  
[info@mendexapark.com](mailto:info@mendexapark.com)

**Webgunea:**  
[www.mendexapark.com](http://www.mendexapark.com)





## Lekeitio, motxilan eramateko esperientzia

*Lekeitiora egun pasa edo oporraldi labur bat igarotzera datorrenak ardoaren eta arrainaren GR38 ibilbidea egin dezake urteko edozein sasoitan. 21 kilometroko ibilaldi atsegin eta lasaiak edertasun handiko natura guneak zeharkatzen ditu.*

**N**atur ingurune zoragarri eta pribilegiatua kokatua dago Lekeitio. Urteko edozein sasoitan kirola egiteko hamaika aukera eskaitzen ditu Bizkaiko udalerriak, eta horien artean, baso, erreka eta paisaia ikusgarrien artean ezkutatutako hainbat txoko ezagutu ahal izango dituzte bertaraten diren ibiltariak.

Lekeitiora egun pasa edo oporraldi labur bat igarotzera datorrenak ardoaren eta arrainaren GR38 ibilbidea egin dezake proposamenen artean. Bidea, hain zuzen, garai batean mandazainek Lekeitioko portutik barrualdeko herrietara arraina zamatzeko erabiltzen zuten. Lekeitio moduko kostaldeko

herriak, barrualdearekin trukaketa ibilbide komertzialen helmuga bihurtu ziren. Sardina, bisigua eta sardinaz freskoak, gazituak edo ketuak ohikoak ziren penintsularen barrualdeko merkatuetan. Ibilbidea XX. mendearen hasierara arte mantendu zen; eta, orain, ibilbide turistiko eta kulturala bihurtuta, antzinako garrantzia berresku nahi du.

### Gure arbasoen historia

Ibiltariak Oiz mendiaren inguruetan hasten den 21 kilometroko etapa atsegin eta lasaia egin dezake ahalegin handirik gabe. Astoagako galtzadan hasita, eta marka txuri eta gorri horizontalekin seinaleztatuta dagoen bidea jarraituz, ibilaldiak edertasun handiko natura

guneak zeharkatzen ditu. Pausoz pauso, ibiltaria harrituko duten herri xarmagarriak eta gure arbasoen historia ezagutzera ematen duten elementu historiko, artistiko eta etnografikoak ezagutzeko aukera ere edukiko du bidaiariak.

Etaparen bukaerak kresalak zipristindutako Lekeitioko arrantzale herri ederrerraino gerturatuko du ibiltaria, eta hori izango da bidaiaren helmuga. Atsedean hartu ondoren, herriak gordetzen dituen altxorak ezagutzeko aprobetxatu dezake bidaiariak: Santa Maria zeruratzearen basilika, Santa Katalina Itsasargia-Itsas Nabigazio Interpretazio Zentroa (Bizkaia eta Gipuzkoan bisita daitekeen itsasargi bakarra), alde zaharra, jauregiak... Eta app berriari esker, bisita gidatuak mugikorrean jasotako argibideak jarraituta egin ahalko dira.

Jantzi oinetako erosoak, eta zator Lekeitio eta inguruak ezagutzera! Ibiltzeko gozamenaren naturarekin batera uztartzen duen esperientzia ahaztezina eta paregabea eraman ahalko duzu motxilan.



lekeitioko  
udala

### TURISMO BULEGOA

**Helbidea:** Independentzia enparantza, z/g

**Telefona:** 94-684 40 17

**Posta elektronikoa:** [turismo@lekeitio.eus](mailto:turismo@lekeitio.eus)

**Webgunea:** [www.lekeitioturismo.eus](http://www.lekeitioturismo.eus)





Mutrikuko portuaren ikuspegia. INHAR MUTIOZABAL

## Zaporedun herria

*Gastronomiaz goatzeko aukera ematen du Mutrikuk, arraina eskaintza nagusi delarik, produktu sorta zabala eskaintzen duelako; era berean, jardueraz gainezka dago.*

Itxas zapore ederrarekin goatzeko aukera ematen du Mutrikuk urte guztian. Izan ere, historian arrantzari estu lotuta egon den babes portuak gastronomia aukera oparoa eskaintzen dio bisitariari. Merezi du itsas brisa lagun jaki ederren dastamenaren plazerrean murgiltzea.

Antzina bisigutan ibiltzen ziren Mutrikuko arrantzaleak neguan; hain zuzen ere, lehen eskabetxeak bisiguarekin egiten hasi ziren. Barruko lurraldeetan komertzializatzen zuten; Gaztela inguruetan eta. Orduan modura, gaur egun ere Mutrikuk arrantzari estu lotuta egoten jarraitzen du. Izan ere, Gipuzkoan dauden kontserberen parte handi bat, ia erdia, Mutrikun dago. Kalitate handiko produktuak dira, artisau tradizioak, eskuz landutakoak. Tartean dago Euskal Herriko kontserbera zaharrena, Yurrita Group, eta tradizio italiarretik datozen kontserberak: Zizzo Billante, Calogero G. Billante, Zizzo kontserbak eta La Mutrikuarra. Eskaintzen dituzten produktuen artean, antxoak, atuna eta bentreska eder eta ikusgarriak daude. Horrez gain, herriko jatetxe

eta tabernetan ere dasta daitezke arrainaz egindako platerak.

Baserri jatorria daukaten produktuen aukera ere zabala da: Sagar-miña txakolina ekoizlea, Getariako denominazioduna; artzain gazta, Goienetxe baserriak ekoizten duena; Ondare enpresak egiten dituen mermeladak eta barazkiak, Kilometro 0 filosofiaren barruan inguruko baserrietako produktuekin ekoiztuak, eta gozoa gogoko duenarentzat, Goxartek egiten dituen txokolate eta izozki bikainak. Horra Mutrikun dastatu daitezkeen hainbat gauza eder.

### Bisitak eta jarduerak

Euskal Kostaldeko Unesco Geoparketik antolatuta, hainbat bisita egin daitezke Mutrikun. *Nautilus*,



*flyscheko fosilak* izeneko bisitan, Geoparkeko fosil erraldoiak ezagutu ondoren itsas irteera egiten da Saturraran arteko itsas-labarrak ezagutzera. *Mutriku Marinela* bisitan, berriz, Mutrikuren izaera arrantzalearen sustraiak ezagutu daitezke. Arrietakua Jauregian egiten den bisitak denboran atzera eroaten gaitu, garai bateko itsasgizon handien bizimodua ezagutzeko. *Karsteko Zaporeak* izenekoak Geoparkeko bihotzera eramaten gaitu, Olatz bailara ederrean barrena. Informazioa eta erreserbak egiteko: **www.geoparkea.eus**.

Eta aktibitate biziagoen artean, buzea, kayak, paddle sup, zaldi irteerak, surfa eta mendi ibilbideak. Zentzumen guztientzat gozagarri, Mutrikuk turismo eskaintza aparta dauka.

### Apirilak 6: Berdel Eguna

24. Berdel Eguna ospatuko da apirilaren 6an, portu inguruan.

Berdelaren kontsumoa indartzeko jaiotako ekimenak galdu ezinezko hitzordua bilakatu da. Era ugaritara prestatutako 25.000 errazio berdel zerbitzatuko dituzte aurtien ere, eta, beste behin, jai giroan ezertxo ere falta ez dadin,

ekitaldi ugariz gozatu ahal izango da. Egitarau guztia **mutriku.eus** webgunean kontsultatu daiteke.



**TURISMO BULEGOA:**  
Txurruka Plaza z/g  
**Telefona:** 943 60 33 78  
[turismo@mutriku.net](mailto:turismo@mutriku.net)

[www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus)





Artibai erreka Alde Zaharrera heltzeko bidea erakusten du.

## Ondarroa ezagutzeko, hamaika arrazoi

*Xarmaz betetako herria da Ondarroa, arrantzale izaera eta izatea barru-barruan daramatzana. Portuko jarduera, ibilbide, kultur agenda, gastronomia... ezer ez da falta.*

**O**ndarroa etortzeko arrazoi asko daude, horietako bat portura joan eta arraina deskargatzen ikustea edo bertan zaudela *turruna* entzunez gero enkantea zuzenean ikusi ahal izatea. Bisita aprobetxatuz, beste arrazoi bat, arrain freskoa arraindegian erostea da. Eta egonaldia osatzeko, gomendagarria da, zelan ez, Alde Zaharrera hurbildu eta hango kaleek daukaten xarmaz gozatzea.

Paseatzeko leku asko dauden herria da Ondarroa; pasealekuz pasealeku, moila guztiak egin ditzake-

zu, bereziki Bizkaibusetik metro gutxira dagoen Arrigorri hondartzatik Saturraraneraino ibilbide lasaia eginez. Aipatzekoa da Arrigorri hondartza bainua hartzeko oso segurua dela.

Mendi ibilbide bat baino gehiago ere badituzu eskura; horietako bat da GR-123 Bizkaiko bira egiten duena. Eta panoramika ederrak ikusi nahi badituzu eta argazkiak atera, Akilla menditik Santa Kruztera igota egin ahalko duzu.

Eta umeekin joateko, Ondarroa eta Berriatua lotzen dituen Errege Bidea deitzen den ibilbidea oso atsegina da; padura ikusi eta sentitzeko aukera emango dizu.

Paseoan zein bizikletaz ibiltzeko, Kamiñazpitik Saturraraneraino Artibai ibaiaren ondotik egin daiteke ibilbidea. Paseo polita da, laua, itsasoraino doana.

Herri arrantzalea izanik, beste aukera bat kainabera hartu eta arrantzan joatea da.

### Kaleko giroan murgilduta

Ondarroan zerbait badago, kaleko giroa da. Pintxoak dastatzeko toki asko daude, eta beste janari batzuen artean jatetxeek ondo dakite arraina prestatzen.

Komertzioan ere aberatsa izanik, Iturribarri kaletik hasita porturaino, mota guztietako dendak





## NOLA HELDU

Bizkaitik zein Gipuzkoatik datozenek autobusez egin dezakete. Bilbotik irtenda, ordu erdiro daude autobusak eta Eibartik, ordubeteko maiztasunarekin.

**A3915 linea (Bilbo-Galdakao-Durango-Abadiño-Berriz-Mallabia-Markina-Xemein-Berriatua-Ondarroa).**

Lanegunetan, 07:40tik 21:40ra bitartean, orduro. Jaiegunetan, 08:40tik 21:40ra.

**A3916 linea (Bilbo-Ermua-Mallabia-Markina-Xemein-Berriatua-Ondarroa).**

Lanegunetan, 07:10etik 22:10era, orduro. Jaiegunetan, 08:10etik 22:10era.

**DB04 Linea (Eibar-Elgoibar-Mendaro-Deba-Mutriku-Ondarroa).**

Lanegunetan, 06:00etatik 20:00etara. Larunbatetan,

07:00etatik 22:00etara. Igande eta jaiegunetan, 08:00etatik 20:00etara.

**DB03 Linea (Donostia-Zarautz-Itziar-Deba-Mutriku-Ondarroa).**

Astegunetan, 08:00, 11:00, 14:30, 18:00 eta 20:30ean. Larunbatetan, 10:30, 14:30, 17:00 eta 21:00etan. Igande eta jaiegunetan, 10:30, 14:30, 17:00 eta 20:30ean.

## NON APARKATU

Mutrikutik sartzen direnek lehen biribilgunea pasa ondoren, bi aparkaleku dauzkate. Bestela, Zaldupe udal kiroldegian atzean aparkatu daiteke.

## NON LO EGIN

Ondarroara datozenek Arrigorri Itsas Ostatuan, Patxi pentsioan edota Harizpe nekazalturismoan ostatu hartu dezakete.



*«Mendi ibilbide bat baino gehiago daude aukeran, eta Akillatik Santa Kurutzera igota, panoramika ederrak ikusi ahalko dituzu»*

daude, eta horrez gain, urtean bitan Merkatu Txikiak egiten dira erdigunean, Alamedan, inguruko herrietatik jende asko erakarritik.

Aisialdiaz gozatzeko, eskaintza zabala dago urte guztian. Ondo pasatzeko hitzordu asko eta asko. Aipagarrienak, Zahar Berritze Azoka Aste Santuan, Antxoia Eguna maiztzean, Zapato Azule ekainean, Andra Mari jaiak abuztuan... Eta kultur jardueri dagokienez, antzerki txikirik eta kontzerturik ez da falta izaten. Kirolak ere leku esanguratsua du; arraunaz, futbolaz, igeriketaz edota judoaz goza daiteke.



Arraina deskargatzen ikusteko aukera eskaintzen du portuak.



**ONDARROAKO  
UDALA**

### TURISMO BULEGOA

Erribera 9 (Kofradia Zaharra)

**Telefona:** 94-683 19 51

**E-posta:**

[turismobulegoa@ondarroa.eus](mailto:turismobulegoa@ondarroa.eus)

**Udal webgunea:** [www.ondarroa.eus](http://www.ondarroa.eus)



Animalia gehienek ia sendaezinak dituzten kalteak dituzte. BASONDO

## Basondo: basofauna behatuz ikasteko lekua

*Berreskuratze Zentro ezberdinetatik etorritako animaliak daude Basondon. Parkea fauna basatiaren defentsara bideratutako hezkuntzan diharduen Xabier Maiztegi Fundazioaren parte da.*

**B**asondo basofaunaren babesleku bat da, zoologiko batekin alderatuz guztiz ezberdina dena. Bertoko instalazioetan gure inguruko animaliak aurkituko dituzue: orkatzak, basurdeak, oreinak, azeriak, basakatua... gehienak Berreskuratze Zentro ezberdinetatik etorritakoak. Animalia ia guztiak sendaezinak diren kalte batzuk dituzte, eta, beraz, ezinezkoa da haiek naturara berriro birsartzea.

Bisitan hurbiletik behatu ahal izango dituzue gaur egun Euskal

Herrian desagertuta dauden, baina aintzina gure basoetako biztanleak ziren beste espezie batzuk ere: otsoa, katamotzak edo bisonteak.

Parkea fauna basatiaren defentsara bideratutako hezkuntzan diharduen Xabier Maiztegi Fundazioaren parte da; Eusko Jaurlaritzak etologia eta ekologiari buruzko Gonzalo Nardiz saria eman zion.

Horretaz guztiaz gain, Basondon animalien zainketa eta sentsibilizazio zein ingurumen hezkuntzarekin lotutako lanak ere burutzen dituzte.



### Bisita motak

#### Norbanakoak:

Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu (jaiotzak, espezie berriak...). Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

#### Taldeak:

Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak (euskaraz eta gaztelaniaz). Ibilbide osoan zehar animalien inguruko ezaugarri oro azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

#### Ikasleak:

Naturari buruzko azalpen ezberdinak ematen dira, taldearen adinari egokিতuta (haur zein nerabeak), euskaraz zein gaztelaniaz. Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egund osokoa bada, arratsaldean landa praktika ezberdinak egiten dira.

### Ordutegia

#### Neguko ordutegia (irailaren 1etik ekainaren 30era).

Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara (15:00etan irteteko). Larunbatak, igandeak eta jaiegunak: 11:00-17:00 (18:00etan irteteko).

#### Udako ordutegia (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra).

Egun guztietan 11:00etatik 18:00etara (19:00etan irteteko).

### Prezioa

**Norbanakoak:** Helduentzako 9 euro eta umeentzako 5 euro.

**Taldeak:** Bisita gidatuetarako erreserba egin behar da beti. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, gidaria dohainik izango da, eta gutxiagokoa bada, taldeko 35 euro ordaindu beharko dira.



**Helbidea:** Basondo auzoa, 6 (Kortezubi, Bizkaia).  
**Telefona:** 94-625 44 36  
**Posta elektronikoa:** [info@basondo.com](mailto:info@basondo.com)  
**Webgunea:** [www.basondo.com](http://www.basondo.com)



# MEMORI TOUR

**GERNIKA**  
IBILBIDE GIDATUAK

1

BABESLEKU ANTIAEREOAK



2

BERRERAIKUNTZA

3

MONUMENTUAK ETA MEMORIA



4

PICASSO ETA "GUERNICA"

## MEMORI TOUR GERNIKA

Memoritourrak 2 ekintza ditu:  
ibilbidea (ordu 1) eta  
Gernikako Bakearen Museoa  
bisita librea (ordu 1).



2€ / PAX ibilbidea



+ museo 3€ / 5€



8-50 PAX



60' ibilbidea + 60' museo



10:15/11:30/12:45 Hitzorduekin

### INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA

Foru Plaza 1, 48300, Gernika-Lumo, Bizkaia  
Tel +34 94 6270213 / [museoa@gernika-lumo.net](mailto:museoa@gernika-lumo.net)  
[www.bakearenmuseoa.org](http://www.bakearenmuseoa.org)



#museodelapaz



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa

bbk

8. ordea Foruak  
100 urte lortu  
agurtzeko





## Ibilbideak

### Lehenengo ibilbidea.

Gautegiz Arteaga - San Martin - San Pedro Atxarre: 16 Km.

### Bigarren ibilbidea.

San Migel Ereñozar: 7 Km.

### Hirugarren ibilbidea.

Mendi martxa: 8 Km.

### Laugarren ibilbidea.

Tremoia - Iruskieta - San Pedro Atxarre: 5 Km.

### Bosgarren ibilbidea.

Ihitzetako ibilbidea: 4,5 Km.

### Seigarren ibilbidea.

Jentilen ibilbidea: 8 Km.

# Gautegiz Arteaga pausoz pauso ezagutuz

*Balio historiko eta natural handiko ibilbide sareagaz Gautegiz Arteaga ezagutzeko aukera ezin hobea dago.*

**T**urismo errespetutsua, landatarra eta desestazionalizatua sustatzeko baliagarriak diren herriko ibilbide sarea eta ondare natural aberatsa ditu Gautegiz Arteagako herriak. Ibilbideak oso baliotsuak dira paisaiari eta ondareari dagokienez. Balio historiko eta natural handikoak dira. Padura, Kantauriar Artadia eta Atlantiar Landazabala zeharkatzen dituzte (Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ekosistemak) eta mendi ibiltaritzak gustukoa dutenentzako eskaintza turistikoa paregabea osatzen dute.

Ibilbideak distantzia eta zailtasun maila ezberdinetakoak izango dira, bakoitzak egin nahi duen bidea aukeratu ahal izateko. Hauetarikoz batzuk, Ihitzetako Ibilbidea edota Jentilen Ibilbidea, kasuan kasu, familian egiteko egokiak dira; eta guztiak plan ezin hobekak dira.

Laster herriko ibilbide sarearen barneko sei ibilbide sistema digitalak erabiliko dituzte. Seinaleak ibilbidean zehar egongo dira ikusgarri. Hauetan eta mapetan ere QR kodeak izango dira informazioa mugikortan deskargatu ahal izateko. Izan ere, ibilbide sarearen informazio guztia sarean eskuragarri dago. Paperezko materiala interesatuen esku jarriko da

herriko establezimenduetan eta eskualdeko informazio puntuetan.

## Jasangarritasunaren alde

Gautegiz Arteagako ibilbide sarea balioan jartzeko ekimenean lan egiten dihardute, eta hau turismo irisgarria, jasangarria eta naturala sustatzearen aldeko ekimenaren barruan dago. Gainera, ostatu eskaintza zabala eta herriko gastronomia dastatzeko aukerak honen osagarriak dira, bisitarientzako interes turistikoa gehituz.



**GAUTEGIZ  
ARTEAGAKO  
UDALA**

**Helbidea:** Herriko Enparantza, 1

**Telefonoa:** 94-627 52 27

**Faxa:** 94-625 29 53

**Posta elektronikoa:**

[udala.gautegiz@bizkaia.org](mailto:udala.gautegiz@bizkaia.org)

**Webgunea:** [www.gautegizarteaga.com](http://www.gautegizarteaga.com)





Visit Urdaibai  
© bai Nueva Europa



# Urdaibai ezagutzeko

## BISITA GIDATUAK

TURISTIKOAK // KULTURALAK // EKOLOGIKOAK

*Zeure neurriko plana egingo dizugu!*



Informazio gehiago eta erreserbak: 634 24 37 62

[www.visiturdaibai.eus](http://www.visiturdaibai.eus)

# EUSKAL GARAGARDO NATURALA



[boga.eus](http://boga.eus) | @gurezaporen







San Andres elizako ganga ikusgarria eta Laga hondartzaren ikuspegia.

## Naturagune xarmanta, Urdaibaiko bihotzean

*Kostaldeko herria, baina nekazal girokoa da Ibarrangelu. Batik bat uda sasoian Euskal Herriko zein nazioarteko turistek eta herriko zein eskualdeko bizilagunek bat egiten dute bere kostako txokoetan.*

**A**txarre, Laida eta Laga hondartzak, San Andres elizaren ganga... kanpotik datozenentzat hamaika interesgune ditu

Ibarrangeluk. Naturaz gozatu zein kultur ondareaz bustitzeko asko eta asko hurbiltzen dira udalerrira, batik bat udan.

Kostaldeak erakarritak, Laga eta Laida hondartza zoragarriak edota Atxarrek berak eskaintzen duen itsasadarren ikuspegi ederrak zentzumen guz-

tiak betetzen baititu. Halaber, gastronomiaz eta kulturaz gozatzeko ere txoko aparta da Ibarrengelu.

Euskal Herriko Kapera Sixtino legez bataiatu dute zenbaitek Elxalde auzoan dagoen San Andres elizaren ganga. Herri-gunean, udaletxe parean dago eliza, eta kristau zein ateoentzat herriko erakargune nagusietako bat da. XVI. mendean eraiki zuten elizak altxor artistiko berezia du barruan.

Zura landuz egindako ganga polikromatuari begira denbora oharkabeen pasatzen da. Izar formako hamabost ganga dauzka. Gainera,



1905eko piano-harpa ezaugarria duen organoa ere badute bertan, eta haren soinuak zein estetikak are bereziagoa egiten du eliza.

### Hondartzak

Urdaibai geldileku ezinbestekoa da surfzaleentzat. Izan ere, Mundakara ez ezik, Ibarrangeluko Laida eta Laga hondartzara ere hurbiltzen dira olatuak hartzera eta baita azken urteetan hain eza-guna egin den Stand Up Paddlea praktikatzera. Gainera, haizeak uzten duenean, Laidan windsurfean aritzen dira asko. Era berean, kayak zein piraguetan itsasadarretik jaitsierak egiteko aukera paregabea eskaintzen du. Baina, besterik gabe, Laidan zein Lagan, igerian egin edota marea beheara dagoenean hondarretik paseatzek ere gogobetetzen du bertakoa zein kanpotik datorrena.

Goiz zein arratsalde pasa egiteko txango aproposa da Atxarreko San Pedro bisitatzea. Kanalatik, Arketatik zein Akordatik igo, umeeekin erraz egiteko ibilaldia da. Urdaibaiaren begiratoki miresgarria da; behelainoagaz edo lanbroagaz itsasadarra estaltzen duenean ere paisaia ikusgarria sortzen da. Eta, egunsentiaz zein ilunabarraz gozatzeko leku pribilegiatua da.

### Arketa Kanpina

Laida hondartzan dagoen Arketa Kanpina belarrezko lursailetan banatuta dago. Gutxi gorabehera partzelek 8x6m-ko zabalera dute, eta bakoitzean gehienez sei pertsona sar daitezke. Kanpadenda zein edozein ibilgailu mota sar daiteke.

#### Harremanetarako.

Telefonoak: 94-627 81 18/672 68 34 14.

Helbide elektronikoa:

[info@campingarketa.com](mailto:info@campingarketa.com)

Webgunea:

[www.campingarketa.com](http://www.campingarketa.com)



**IBARRANGELUKO  
UDALA**

Helbidea: Elxalde, 1.

Telefonoa: 94-627 60 04

Faxa: 94-627 62 95

Posta elektronikoa:

[udala.ibarrangelu@bizkaia.org](mailto:udala.ibarrangelu@bizkaia.org)

Webgunea: [www.ibarrangelu.net](http://www.ibarrangelu.net)





## URDAIBAI KIROLEROAK

### KAYAK

18 euro/pertsonako  
(< 5 urte doan)



### PADDLE SURF

22 euro/pertsonako

**Urdaibaiko itsasadar**retik ibiladi  
lasai eta atseginak.

**Talde, bikote, famili, ezkondu aurreko  
agur, elkarte eta enpresei zuzenduta**  
(Paddle surfa egiteko gutxienez 12 urte).

Monitore gabe egin daiteke Kayaka.

Talde minimoa 2 partaidekoa.

**Iraupena: 2 ordu edo 2 ordu 30 min bitartean.**

Elkartze puntua: Mundakako hondartza.

### MATERIALAREN ALOKAIRUA

BANAKAKO KAYAK: 23 euro / 3 ordu

KAYAK BIKOITZA: 30 euro / 3 ordu

PADDLE SURF: 10 euro/ 1 ordu

MOUNTAIN BIKE: 17 euro/eguna •

40 euro/3 egun • 60 euro/5 egun

**ETA GEHIAGO:** Kayak itsasoan, eskalada,  
rappela, espeleologia, mendi-lrteerak,  
Slack line, BTT.

Taldeko ekintzak [6tik 12rako taldea]

**urdaibaikiroleroak.com**

**699 761 736**

# LAI DA KANOAK

**Jaitsierak Urdaibain**



**94 627 65 15**

**www.laidakanoak.com**





Bermeoko Gaztelugatxe turisten erreklamu bihurtu da. BERMEOKO TURISMO BULEGOA

## KULTURA, KIROLA ETA TRADIZIOEN ESZENARIO

*Gaztelugatxeko San Joan da Bermeok gaur egun duen erreklamurik ezagunena. Pantailatik saldu denak, baina, betidanik du nortasuna. Harekin batera, turismo eskaintza askotarikoa da Bermeon.*

**P**antailari esker, mundu zabalean ezaguna egin da Gaztelugatxeko San Joan, eta, harekin batera Bermeo. Kantauriko kostaldeko herri arrantzaleak errotuta du bere nortasuna, eta turismo eskaintza ere horren adierazle da. Bisitari kopurua nabarmen handitu da azken urteetan, Gaztelugatxen batez ere. Baina telesail ezagun bateko eszenarioa izateaz harago, islatxo horrek badi-tu bere historia eta istorioak, eta ezagunago egin duen telesaileko gidoia idatzi aurretik ere, hainbat bataila libratu dira bertan.

X. mendekoa da bertako baseliza, eta mendeetan mantendu diren usadioak gorde ditu. Herriko arrantza ontziek ere ohitura dute ababorrera eta istriborrera biratzeko, santuari eskatzeko eguraldi ona, arrantza ona eta osasuna

Turismoa erakartzeko amu ede-

rra izanik ere, Gaztelugatxe baino zer gehiago badu eskaintzeko Bermeok.

### Aukera anitzeko herria

Kirola gustuko dutenek Nordic Walking praktikatzeko 50 kilometro inguru dituzte. Ibilbideei esker, Bermeo eta bere auzoen beste ikuspuntu bat ezagutzeko aukera izango dute bisitariak.

Kostako herria izanik, itsasoarekin lotutako kultura da bertakoa. Arrantzaleen museoko horma sendoak dira tradizio eta kulturaren babes eta gordeleku, eta arrantzari buruz ezagupenak handitu gura

### Erosketak egiteko

#### Arrain kontserbak.

#### San Juanen oinatzak:

Gaztelugatxe gozotegian.

#### Erremedio kalean:

- T-Kimua: Bermeoko tea, itsas belarrekin eginda.
- Elorri: Bertoko txokoen margolanak.
- Kuku-enea: Gaztetxoentzat jostailuak.
- Uhaina Surf&Art: Tokiko produktu pertsonalizatuak.

### Gomendatzeko

#### -Txoko bat: Tala

-**Une bat:** Eguerdiko txikiteoa zapatueta eta domeketan.

-**Derrigorrezkoa:** Portuzarretik paseoa.

-**Aktibitate bat:** Zetazeoak behatzeko irteera Hegaluze ontzian.

-**Dibertimendu bat:** Turismo aktiboa.

-**Aurkikuntza bat:** Bermeotarren XX. mende hasierako arkitektura: Ispizua, Anasagasti, Arzadun...

### Loturak

#### -**www.bizibermeo.eus**

-**www.tiketa.eus/gaztelugatxe**

-**www.nordicwalkinggunea.net/La-Red-de-Centros-NW/nw-bermeo**

dituenak aukera paregabea du bertan. Larunbatetan, gainera, sarre-ra dohainekoa da.

Eta herria bera bisitatzea opari ederra bada ere, oroigarri bat nahi duenak ere baditu hainbat aukera. Arrain kontserba lantegietako dendetan danetariko produktuak saltzen dituzte. Arroyabek, esaterako, gastrodenda dauka herriko erdigunean. Gozozaleek, bestalde, San Juanen oinatzen pastekin das-tamena goza dezakete, eta Erremedio kalean belaunaldi berrien produktu berritzaileak eros daitezke.



#### BERMEOKO TURISMO BULEGOA

Helbidea: Lamera z/g 48370 -Bermeo


Telefona: 94-617 91 54

Posta elektronikoa:

turismoa@bermeo.eus

Webgunea: **www.bizibermeo.eus**





**Apartamentu Turistikoak**   
 Andra Mari, 10 | Bermeo | Bizkaia  
 Mug.: 626 891 661 | Tel.: 94 640 67 41  
[www.bermeoapartamentos.com](http://www.bermeoapartamentos.com)



Erremedio kalea, 24  
**BERMEO**



(+34) 946 187 703  
 (+34) 688 899 391

[reservas@aldatzeta.com](mailto:reservas@aldatzeta.com)





Bermeoko hiribilduan kokatua, Urdalbaiko Biosferaren ondoan, Arizurieta Landetxe Ekologikoa aurkituko duzu: gure baserri ederra, naturaz inguratua, ondo komunikatua eta jasangarritasunagaz bat egina.



Arizurieta landetxeak apartamentu bat du behean 3-6 lagun artekoa, ezintasun fisikoaren dutenentzat egokitua. Eta 6 logela golko pisuan. Beheko solairuan, sukalde eta jantoki-egongela dauzka.



### Ekipamendua

- Berokuntza orokorra eta logeletan ere bai.
- TV-a eta tximinia egongelan.
- Sukalde aukera bezeroentzat.
- Liburutegia / Mahai jokoak.
- Internetera sarbidea. Doako wi-fi-a.
- Terraza solariuma gela bitan.
- Jolas gunea - berdegunea.
- Aparkalekua.

### Logelak

6 logela daukagu, zabalak, ohe gehigarria/k jartzeko aukera dutenak, bakoltza bere komuna eta apainketa ezberdinarekin.



### Ingurumenarekin konprometiturik

Landa Etxe Ekologikoaren zigiluarekin, gure establezimenduak etengabeko esfortzua egiten du ingurumena zaintzeko; ingurumena babestu eta kontserbatzeko neurriak hartzen ditugu, ballabide naturalen iraunkortasunean laguntzeko, bezeroaren erosotasunean eragin gabe.

Mañu Auzoa, 43  
[BI 631 erreplidea]  
BERMEO - 607 48 27 00  
info@arizurieta.es  
www.arizurieta.es

**Arizurieta**



ES-ES-001/0008





Euskal Hernian  
eta eskuz  
egindako opari  
pertsonalizatuak.  
Material  
berziklatuak  
eta kotoi  
organikoak.  
Bertoko  
emakume  
ekoizkoleek eta  
sortzaileek  
egindakoak:  
jantzi eta  
osagarriak,  
bitxiak eta  
bitxikeriak,  
kosmetika  
naturala,  
umeen arropak  
eta zurezko  
jokoak...

UHAINA

Erremedio kalea, 19  
BERMEO  
uhaina.es  
info@uhaina.es  
615 79 33 62



@uhaina\_surf\_art



Euskal Herriko produktuak, oroigarriak eta opariak.  
Gure lurraldearekin inoiz ahaztu ez zaitezten!

# EUSKAL SOUVENIRS

Andra Mari Kalea, z/g  
48300 Gernika-Lumo  
www.euskalsouvenirs.com  
+34 946 251 930



@euskalsouvenirs







## Erreka eta itsasoaren abaroko altxorrak

*Erreka zein itsaso bazterretan txoko miresgarri asko gordetzen ditu Eak. Horietako bat da Urtubiaga burdinola. Garai bateko bizimoduaren ikur, eta belaunaldiz belaunaldi ondarea babestearen eta mantentzearen isla garbia.*

**E**a erreka inguruko etxeak eta bi parteak lotzen dituzten zubiak dira udalerriko datozen bisitariek lehenengo begitantzen dituztenak. Argazki ohikoa da hori. Hondartzak eta portuak ere arreta erakartzen dute. Ikuspegi ederrak biltzen ditu kostaldeko herri xarmangarriak. Ea ikusteko eta Eaz gozatzeko modu asko daude. Eak, Natxituak eta Bedaronak asko dute erakusteko, mendien berde eta itsasoko kresalaz harago.


Atsedengune apartak; lasaitasunez eta isiltasunez betetako txokoak. Haize freskoa eta sana arnastu eta bertako ondarean bustitzeko hamaika aukera daude. Uda garaian, batik bat egun eguzkitsue-

tan, jendearen barre-algarak hartzen dituzte herriguneko kaleek, udatiaz gain, asko baitira udalerriaren edertasunak liluratuta bertaratzen direnak.

Kirola egiteko ere askotarako ematen du, edozein urtarotan.

Oinez, korrika zein mendiko bizikletan egiteko ibilbideak daude, eta horietako bat da Uraren ibilbidea. 7 bat km-tan, garai bateko burdinolen eta erroten historian murgiltzeko aukera bikaina da. Urtubiaga burdinolan geldialdia egiteak merezi du.

1725eko ola bi familiren artean erai-ki zuten; ziur ez dakite noiz eten zuten ekoizpena, baina 1830eko hamarkadara arte martxan egon zela badakite. Bizkaian egokien kontserbatu denetarikoa da. Duela hamalau bat urte garbiketa lanak egin, eta



hari buruzko dokumentazioa bilatzeari ekin zioten. Tartean, ola sortzeko gutuna topatu zuten. Jakin dutenez, aurretik Erdi Aroko burdinola bat egon zen bertan. Errota, berriz, 1960ko hamarkadarte erabili zuten. Ola pareko uharka arkudunak ere ikusmina sortzen du; bitxia da.

Igerian hondartzan, Eako zein Natxituko lapatzen parean, edota trebeenek Kaiarrixaraino joan-etorrian. Azken horrek esangura berezia dauka herritarrentzat. Izan ere, San Joan bezperan, moilan txalupetara igo, eta Kaiarrixa irlara joaten dira eatarak, tontorrean ikurri-na jartzera. Horrela hasten dituzte Eako jai nagusiak.



**EAKO  
UDALA**

**Helbidea:** Donibane enparantza, 2

**Telefonoa:** 94-627 52 27

**Faxa:** 94-627 51 99

**Posta elektronikoa:** [udala.ea@bizkaia.org](mailto:udala.ea@bizkaia.org)

**Webgunea:** [www.eakoudala.eus](http://www.eakoudala.eus)

[www.eaturismo.eus](http://www.eaturismo.eus)





**Urdaibai On**  
*Urdaibai On Kulturako Arloak | Urdaibai On Kulturako Arloak*

**Mundaka**  
 Puerto base



**Sukarrieta**  
 Ixatxarramendi



**Ibarrangelu**  
 Arketa-Laida



**Abina-San Antonio**  
 Busturia



**Telleria**  
 Murueta



**Ozollo Errota**  
 Gautegiz-Arteaga



**Urtzieta**  
 Gernika-Lumo



Lago

Ogoño

Elantxobe

# ITSAS BIDAIA TURISTIKO KULTURALAK URDAIBAIKO URETAN

Jarri gurekin  
 harremanetan

EKAINA-UZTAILA-ABUZTUA-IRAILA

Prezioak

| 6 urtetik behera | 🕒   | +txango gidatua | + dastaketa barne |
|------------------|-----|-----------------|-------------------|
| 2€               | 1 h | 15€             | 20€               |
| 5€               | 2 h | 25€             | 30€               |

|   |       |    |              |    |
|---|-------|----|--------------|----|
| 🚣 | Joana | 5€ | Joan-etorria | 8€ |
|---|-------|----|--------------|----|



nabigagarri  
 20km

**Aurretiaz erreserbatzea gomendatzen da**

626859477  
 INAKI



urdaibaion@urdaibaion.com  
 www.urdaibaion.com







Andramarietan Kabelinatxe dantza taldekoek dantzatzen dute plazan.

## Nabarniz, jai egun askoko herri txikia

*Irailean ospatzen dituzten andramariak dira herriko jai nagusiak. Hala ere, Santiago, San Isidro, San Kristobal eta sanmigeletan ere kalera ateratzen dira herritarrak, eta erromeriagaz herria alaitzen dute.*

**I** luntzar mendiko begiratokitik ikusten dira Nabarniz herriko zazpi auzoak: Lekerika, Merika, Elexalde, Uribarri, Zabaleta, Intxaurrea eta Ikazurieta. Horietan guztietan, jai bat edo beste ospatzen dituzte urtean, herri txikia izanda ere, asko baitira nabarniztarrek ospatzeko dituzten jaiak. Herriko dantzarien inguruan elkartu eta jai giroan hainbat aldiz batzen dira. Egun argi edo ilunetan musikaz eta dantzaz girotzen dituzte auzoak.

Irailean ospatzen dituzten Andra Mari jaiak dira herriko jai nagusiak. Jai horietan badira galdu ez diren ohitura zaharrak; morokil jana, esaterako. Esne eta arto irinez egindako jakia da morokila, eta bere garaian ia egunero jaten zuten. Hala, eskualdean, *morokil* ezizenez ziren ezagunak nabarniztarrek.

Aipatzekoa da, gainera, betidanik Nabarnizen egon den herri kiroleko zaletasuna; zaldi probek hartu zuten ospe handiena. Desafioek ere ikusmira handia sortu zuten herrian, eta gaur egun ere, Nabarniz, zaldi proben herria dela esan daiteke. Izan ere, Andra Mari jaietan zaldi proba txapelketak antolatzen dituzte.

Herriguneak ezeze, Nabarnizko auzoek ere bizi-bizi jarraitzen

dute. Uribarri auzoko San Migel basilizan ospatzen dute San Migel eguna. Ura eta gatza bedeinkatzen dituzte mezatan, eta hamaiketako jateko batzen dira gero. Antza denez, aurreko mendean ere ospatzen zuten erromeria.

Auzoetako basilizetan ere erromeriak ospatzen dira jai egun askotan. San Kristobal egunean Ikazurietako auzoa girotzen dute dantzari eta trikitilariak.

Lekerika auzoan santiagoak ospatzen dituzte. Egun osoko egitaraua antolatzen dute, herriko jai garrantzitsua da-eta Santiago eguna. Ikuskizun ugari izaten dira: dantzariak, marmitako txapelketa, puzgarriak, herri kirolak... Inguruko herrietatik jende asko hurbiltzen da; batik bat aulestiarak.

### Jaiak berreskuratzen

Azken urteetan galdu izan diren hainbat jai izan dituzte herrian, eta berreskuratzeke lanean dabilta nabarniztarrek azken urteetan.

Santa Ageda eguna berreskuratzen dabilta, eta azken urteetan baserri baserri herriari bizitasuna ematera atera dira hainbat eta hainbat; bezperako koplak abestera ateratzen baitira bizilagunak.

Inauteri sasoian, beste alde batek, mendira ibilbidea egiten dute, eta txitxiburduntzia prestatzen dute bertan.

San Isidro egunak ere badu bere tokia. Herriko baserritarrak meza entzuterako joaten dira.

San Juan bezperako suak, berri, auzo bakoitzeko zelaian pizten zizuten garai batean, baina gaur egun Eleixaldeko suaren inguruan elkartzen dira.



**NABARNIZKO  
UDALA**

**Helbidea:** Elexalde auzoa, 14  
**Telefona:** 94-625 50 77  
**Faxa:** 94-625 65 12  
**Posta elektronikoa:**  
[udala.nabarniz@bizkaia.org](mailto:udala.nabarniz@bizkaia.org)  
**Webgunea:** [www.nabarniz.eus](http://www.nabarniz.eus)





# INER CARAVAN



Autokarabanen, karabanen, kanperren, furgoneten eta autoen salmenta, alokairua, konponketa, mantenimendua, homologazioak eta osagarrien instalakuntzak egiten ditugu **4.000 metro koadroko gure tailerrean.**

**943-05 08 03 / 699 13 02 32**

comercial@inercaravan.eus • [www.inercaravan.eus](http://www.inercaravan.eus)



Itsaspe auzoa, 3 • ITZIAR-DEBA





# Urdabaiko historiaren zaindari

**X**armaz eta edertasunez beteriko udalerria dugu Arratzu; zelai berde, baserri sendo, mimo guztiagaz zaindutako ondare historiko natural, eta gotorleku, gerlari eta harresien historia harrigarriez josia.

Arrola mendiaren tontorrean, 530 metrotik gora, Bigarren Burdin Aroko herrixka gotortua (K.a IV. mendetik K.o I. mendera artekoa) aurkituko dugu, geure arbasoen bizimoduaren lekuko. Kantauri ekialdeko herrixka indigenarik garrantzitsuenetakoa da, eta Bizkaia osoan egoera onenean mantendu dena. Tontorraren airetiko ikuspe-

gia guztiz harrigarria da. Bizkaiko Foru Aldundiak burututako ikerketa, indusketa eta berreskurapen lanei esker, herrixka inguratzen zuen harresia, ate monumentalak, kastroaren sarrera babesteko erabilitako labirintoa eta etxebizitzaren gunea ikus daitezke. Oppidumeko biztanleak beste kastro batzuetako biztanleen erasoetatik defendatzea zuten helburu. Arratzuko partekatu eta zabaltzen dituen iraganaren aztarnak dira egun.

## Arrolagune

Herrixka gotortuaren bizimodua nolakoa izan zen ezagutzeko aukera eskaintzen du Arratzuko kultur etxean dagoen Arrolako Oppidum-

aren Interpretazio Zentroak, ondo landutako ilustrazioen bitartez. Erakusketaren elementurik nabarmenatarikoena tamaina naturalean eta zehaztasunez birsortutako herrixkaren etxola bat da. Erabateko errealismoz, etxebizitza horrek Arrolako biztanleak bizi ziren garaia eta egunez eguneko etxegirora daramatza bisitariak. Herriaren bizimoduaren zein hileta-aztuen berri ematen du erakusketak.

Arrolagune Interpretazio Zentroa asteburuetan dago zabalik (larunbata edo igandeetan, 10:00etatik 14:00etara bitartean) eta Arrolako Oppidum-a ezagutzeko, uztailean eta abuztuan antolatzen diren bisita gidatuez gain, oinez egiteko bisita bereziak antolatzen dira urte osoan (hurrengo, maiatzaren 19an izango da). Taldeen tzako bisitak egiteko aukera ere badago, aldezturik erreserba eginez. Horretarako informazioa 634 24 37 62 telefono zenbakian eskuratu daiteke.



## ARROLAGUNE INTERPRETAZIO ZENTROA

**Helbidea:** Loiola auzoa, 4/Arratzuko kultur etxea, 1go solairua

**Informazioa:** 94 465 16 57

**Posta elektronikoa:** [santimamine@bizkaia.eus](mailto:santimamine@bizkaia.eus)

**Webgunea:** [www.arratzu.com](http://www.arratzu.com)





# Bodega Berroja

## TXAKOLI

### > Enpresa eta taldeentzako TXOKOAK:



- jardunaldiak • erakustaldiak •
- formakuntza • aurkezpenak •
- batzarrak...



### >> Enpresentzako EKINTZAK:



- jatorduak
- teambuilding
- ginkanak
- herri kirolak...



### >>> Ekintza PRIBATUAK:



- despedidak • ezkontzak •
- bataioak • lehen jaunartzeak •
- zartaginakoak eta parriladak •
- lagunak edota senideak
- batzeko leku aproposa •
- sukaldaritza ikastaroak...

### >>>> BISITAK eta DASTAKETAK:



- bodegara bisita
- ardo dastaketak
- bisita gidatua produktu
- artisauen dastaketarekin •
- bisita gidatuak bazkari eta
- afariarekin...



**Ajuria** [Zugastietatik Bizkaiko  
balkoirako errepidea]  
Berroja auzoa • MUXIKA



tf: **94-410 62 54**  
faxa: **94-630 93 90**



[txakoli@bodegaberroja.com](mailto:txakoli@bodegaberroja.com)





# urdaibai

Turismo aktiboa eta abentura



Coasteering



Kanoa/Kayak

[www.urdaibai.com](http://www.urdaibai.com)  
[info@urdaibai.com](mailto:info@urdaibai.com)



94 627 66 61 / 688 635 190



SUP - Stand Up Paddle